

Harian

» **12 ■ Fernando Muniozuren hil da**
Minbiziak jota hil da pentsalaria eta eskaltzalea, eta larunbatean agurreko ekitaldia egingo diote Eibarren.

Euskal Herria 2020
egitasmoaren norabideak
aurkeztu dituzte, urtebetez
500 jendek gogoeta eginda

NORA ARBELBIDE

Baiona

Bilkura luzea izan zen atzokoa. Pentsa, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako ekonomia, garraioa, hirigintza, goi mailako trebakuntza, osagarria, prekarietatea, nortasuna, euskara... Sail horiek guztiak zeharkatu zituen Euskal Herria 2020 egitasmoaren lehen urratsak. 2020. urteari begira sektore bakoitzaren arkitektura marrazten hastea baitzuen helburu hitzorduak. Horretarako, urte osoan 500 bat eragilek atelietan eraman gogoeta eta eztabaidak oinarri izan zituen, Hautetsien Kontseilua eta Garapen Kontseilua buru.

Zehazki, sail bakoitzeko gaurko egoera azaldu eta ondoko urteetan gauzatu beharreko desafioen proposamenak egin zituzten. Mementoko, ordea, gogoetak baizik ez dira. Izan ere, proposamen horiek negoziatzeko garaia zabalduko dute irailean.

Bizkitartean, aski adierazgarria izan zen ikustea bilkura horretan Euskal Herriaren geroak mintzatzeko ari zirela, hitz bakar bat ere ez zela entzun euskaraz. Horrez gain, banatu 800 orriko txostenean ere, titular pare bat aparte, guztia frantses hutsean dago.

Horiek horrela, Alain Lamasoure Hautetsien Kontseiluko lehendakariak ireki zuen atzoko dantza, Euskal Herria 2010 egitasmoa gogoratuz, honen haritik heldu baita proiektu berri hori. Horik, atelietako sintesia egin eta Marc Cabane Pirinio Atlantikoetako prefetak hartu zuen hitza. Horrela jakin zen Frantziako Estatua berriz ere Euskal Herriarekin lurralde kontratu bat egiteko ados zegoela. Euskal Herria 2010 egitasmotik jalgi Hitzarmen Bereziaren itxurarekin, baina ez dena baitezpada «berezia» izan.

INSTITUZIO ESKASA BESTE BEHIN SALATUA.

Taula gaineko arduradunek beren hitzartzeak bururaturik, funtsezko galderak oraino konpondu gabe gelditzen direla nabarmendu zuen batek baino gehiagok publikotik. Hauen artean, Mixel Etxebeste Mauleko enpresaburua: «Politika koherente bat izateko gure aukera propioak egiteko ahala ukan behar dugu. Gipuzkoak daukan dinamismoa beti hartzen duzue adibidetzat. Bada, dinamismo hori, herriarrek ordaindu zergak hark berak kudeatzen dituelako da lortzen, hark berak baitu aukeratzeko



Max Brisson, Jean Lissar, Jean-Jacques Lasserre, Marc Cabane, Beñat Darretxe, Michel Veunac eta Jean Rene Etxegarai, Garapen Kontseiluko eta Hautetsien Kontseiluko kideak eta

Ipar Euskal Herria 2020a marrazten

horrekin zer egin. Gure kasuan, ordea, erabakiak ez dira gure esku». Euskal departamenduari buruzko erreferendumari sosten-gu gehiago ekartzearen beharra ere azpimarratu zuten pare bat hautetsik. Pareko erantzuna Lamasouren ahotik entzun zuten: «Zergen kudeaketa propioa gune aberatsek baizik ezin dute egin. Eta gu ez gara Frantziako eskualde aberatsen zerrenda horretakoak. Horrela balitz ez genukeen bes-teen laguntzarik beharko».

Publikotik egin beste kritiketan mugaz gaindiko harremani bu-

ruz izan ziren: «Mugaz gaindiko harremana berriz ere era pasibo batean du kontuan hartzen proiektuak, partaidetza aktiboak jorratu ordez», salatu zuen Ramuntxo Camblongek, Garapen Kontseiluko lehendakari ohiak. Funtsean, Arroxelako (Frantzia) unibertsitateko Michel Pouyllau lehendakariak ere gomendio berdintsua egin zuen: «Daukauen mugaz gaindiko harreman hori gehiago baliatu beharko zenukete nire ustez».

Horren ondoan, gai sozialak ere ukan zituen kritikak. Horien arte-

an Martine Bisauta CFDTko kidea, horri buruzko ausardia eta gogoeta eskasaz mintzatu zen: «Prekarietatean bizi den jende gero eta gehiago dagoela-eta, hor ere ez da gure esku egoera hobetzea».

DIRUAK AZKEN HITZA. Dena dela, denek argi dute ondoko sei hilabeteetan jokatuko dela puntu nagusia, hau da, finantzaketarena. Lehen-tasuna daukaten proiektuak hautatu beharko dira, koherentzia bat xerkatuz hitzarmen berezi berri horretan sartzeko. EH 2020 egitasmoaren norabideak aldeaz aurretik Europatik heldu diren zuzendari-tzei egokitzen ahalegindu dira. Izan ere, orain arte diru laguntzak zonaldeka banatuak baziren, hemendik aitzina proiektuak dira emanen. Hortaz, proiektuaren mamia ahal bezain eraginkorra izatea ezinbestekoa dela argi dute arduradunek. Zeren arabera eraginkorra? Gaur egun kontratu publikoek Lisboako goi bileran 2000. urtean adostu norabideak errepertatu behar dituzte. Hau da, berrikuntzarako gaitasuna baita garapen iraunkorra, maila guztietan. Baldintza horiek betetzen dituzte-nek dute dirua eskuratzeko.

«Eskualdeko prefetak berretsi dit hitzarmen bat berriz ere izenpetzen ahalko duzuela Estatuarekin»

MARC CABANE
PIRINIO ATLANTIKOETAKO PREFETA

«Politika koherente bat izateko gure aukera propioak egiteko ahala ukan behar dugu»

MIXEL ETXEBESTE
ZUBEROAKO ENPRESABURUA

«Zergen kudeaketa propioa gune aberatsek baizik ezin dute egin, gu ez gara zerrenda horretakoak»

ALAIN LAMASSOURE
HAUTETSIAKONTESEILUKO LEHENDAKARIA

«Mugaz gaindiko harremana berriz ere era pasibo batean hartzen du kontuan proiektuak»

RAMUNTXO CAMBLONG
GARAPEN KONTESEILUKO LEHENDAKARI OHIA

«Daukauen mugaz gaindiko harreman hori gehiago baliatu beharko zenukete, nire ustez»

MICHEL POUYLLAU
ARROXELAKO UNIBERTSITATEKO LEHENDAKARIA

«Prekarietatean bizi den jende gero eta gehiago dagoela-eta, hor ere ez da gure esku egoera hobetzea»

MARTINE BISAUTA
CFDT SINDIKATUKO KIDEA

Euskal Herria 2010 proiektuaren haritik

Euskal Herria 2020 izena daukan egitasmo berri honek, Euskal Herria 2010 egitasmoarekin abiatu bideari jarraitzen dio. Ondorioz, Euskal Herria 2010 nondik heldu den jakitea egokia izan daiteke, proiektu berri hau ulertzeko. Izan ere, 1992an sortu zen EH2010 gogoeta taldea Ipar Euskal Herriko hainbat eragile sozioekonomikoren eskutik. Garapen Kontseilua izan zen emaitza nagusia.

Gogoeta taldeak sei esparru landu zituzten 2010 urteari begira, abertzaleen ideietatik franko edanez. Baina laster ikusi zen berezko instituzio baten falta. 1999an, Departamenduaren aldeko dinamika indartu zelarik, eragin presioak lehen Kontratu Plana egitera behartu zituzten Frantzia eta Akitania, baina ez zituen kexuak ezitu eta Hitzarmen Bereziaren izenpetu zen. Bide bera segitzen ari da EH2020, beti ere berezko instituziorik gabe.